BIZITEGI ERAIKINA — IPARRAGIRRE 4

D MAILA



Egilea eta data: Francisco Urcola; 1900

Deskribapena

Bi kaletara ematen duen mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta hiru goi oin dituena. 1925ean eraikina eraldatu zuten, Iparragirre kalerantz hiru oin gehiago eraikiz (4.a planoan, 5.a mantsardatua eta 6.a atzeraemana), kale horretako behe oineko zenbait bao bat eginez, eta Laburra kalera ematen duten jatorrizko profila eta fatxada aldatu gabe (b+3). Bi fatxadak hareharrizko harlanduz eginak daude.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen direnak –behe oineko baoen eta fatxadaren konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.